



JONE MIREN HERNÁNDEZ

EKAINAK 20

Euskaren transmisioan lagungarria izan daitezkeen beste eredu batzuk

Kontuan hartuta azkenengo urteotan euskararen transmisioaren inguruan sortutako zalantzak, galderak edo kritikak, etorkizunari begira lagungarriak izan daitezkeen bestelako kontzeptu, eredu edota hurbilpenak planteatu nahi dira. Kasu honetan “hizkuntz sozializazioa” (*language socialization*) edota “familia hizkuntz plangintza” (*family language policy*) bezalako ikerlerroetan jarriko da arreta bereziki. Ikuspegi horietatik gauzatutako ikerketak eta esperientziak gurean noraino izan daitezkeen aplikagarri aztertuko da, bai eremu teorikoan, bai aplikatuan.